

Uxue Llorente Toledo

Emaila • 2 saria



Ni Uxue Llorente Toledo naiz, Beasaingo neskati
bat. 11urte ditut eta ekainaren 23an beteko ditut
12.Murumendi eskolan ikasten dut 2 urte nituenetik.
Aurten nire azken urtea da eta oso urduri nago.

Nik zaletasun asko ditut, adibidez biolina jotzea,
dantzatzea, igeri egitea, irakurtzea, ipuinak idaztea eta
lagunekin jolastea.

Aurten nire lehen urtea da lehiaketa honetan sari bat
irabazten dudala eta oso gustura nago.

Aurten idatzi dudan ipuina Senegalen jaio zen neskati
bati buruz da. Nik asko gozatu dut ipuina idazten eta
gustatuko litzaidake zuek ere irakurtzen gozatzea.
Animatu zaitetze ipuina irakurtzera!!!

AWAREN BIZITZA BERRIA

Kaixo, lehenengo neure burua aurkeztu nahi dizuet :

Ni Awa naiz, bai Awa. Izen berezia ezta? Gustatzen zaizue? Ba, begira, Izen hori Senegalekoa da, esanahia esaten dizuedanean seguru oraindik gehiago gustatuko zaizuela nire izena. Izan ere, Awak zoriontsua esan nahi du. Gurasoek izen hori jarri zidaten ni jaio nintzenean munduko zoriontsuenak sentitu zirelako, eta ni bizitzan zoriontsua izatea nahi zutelako.

Ni jaio Senegalen jaio nintzen. Badakizue non dagoen Senegal? Hemendik urruti – urruti - urruti dago, Afrikan !!! Nire jaioterria Touba da. Touba hiria, Senegaleko Ipar-aldean dago. Han jaio nintzen eta han bizi izan nintzen oso zoriontsu orain dela gutxi arte.

Touba nahiko handia da, bostehun mila pertsona baino gehiago bizi dira bertan, beharbada zuei ez zaizue oso polita irudituko orokorrean lehorra delako, etxeak baxuak eta pobreak direlako , kaleak asfaltatu gabe daudelako, trafikoa handia eta nahasia dagoelako ... Hobeto ez imajinatzea trafikoa batez ere ,sekulakoa da, inork ez daki nondik joan behar duen errepidean,han ez dago ez ertzainik ezta udaltzainik ere. Baina gauza polit asko baditu , esatebaterako han dagoen mezquita bat,oso ospetsua da.

Baina Touba herrian dagoen gauza zailena lana aurkitzea da. Ez da gezurra, ez. Horregatik etorri behar izan ginen nire gurasoak familia eta ni Euskal Herrira bizitzera. Jarraian zehatz-mehatz azalduko dizuet dena:

Nire Touban oso gustora bizi nintzen, ez geneukan gauza asko,baina ni oso maitatua sentitzen nintzen, nik ere gurasoak eta anai-arrebak maite nituen, aitona-amonak han zeuden, lagun

onak nituen, eskolan oso ondo pasatzen nuen ... Baina arazo bat zegoen... egunak pasatzen ziren heinean, geroz eta janari gutxiago geneukan etxean, ez zidaten arropa gehiago erosten, nire gurasoak oso kezkatuta ikusten nituen, batzuetan ama ezkutuan negarrez ikusten nuen eta konturatzen nintzen Europa geroz eta gehiago aipatzen zuela aitak.

Europa, Europa... zer ote zen? behin eskolan irakasleari galdetu nion. Zer da Europa? Irakasleak galdetu zidan non entzun nuen hori. Etxean esan nioenean triste jarri zela iruditu zitzaidan. Lurralde bat zela esan zidan, urruti zegoena, hangoak txuriak zirela, eta lurralde oso aberatsa zela esan zidan, hainbeste janari zutenez asko botatzen zutela, etxe askotan bi kotxe zituztela eta hainbeste entzun ondoren mapa batean erakutsi zidan non zegoen. Ze urruti zegoen Europa!

Iritsi zen etortzea espero nuen eguna, aitak esan zigun Europara etorri behar zuela, guretzat etorkizun hobe nahi zuelako, guk etxean ez geneukanez ezer, zerbait egin behar zuela batez ere guregatik.

Ez dit inoiz azaldu nola etorri zen Europara, baina bai, ze ibilaldi egin zuen. Nahi duzue jakin? Bueno lehenengo Bordj Badji Mokhtar-era joan zen ez da oso izen polita eta uste dut horrek eragina izan zuela lana ez aurkitzeko. Ondoren Ceutara joan zen han ez dakit zergatik ez zuen lana aurkitu, baina bueno. Gero Espainiara pasatu zen, Espainian zehar asko ibili zen adibidez hiri handietan Sevillan, Madrilan eta baita herri txikietan adibidez Cornagon, Ujuen, Bargasen... berak eskutitzak bidaltzen zituen egoten zen lekuetatik eta guk mapan markatzen genuen aita non zegoen. Pentsatuko duzue oso erraza dela, baina ez, aita lan bila urruti eta gu etxean aita ikusteko eta besarkatzeko irrikitan.

Halako batean aitak eskutitz batean esan zigun lan bila gorago joan behar zuela, Euskal Herrira, bere lagun bat Gipuzkoako herri batera joan zela, Beasainera, eta han lana bazegoela. Hurrengo eskutitza Beasaindik idatzi zuen. Oso gustora zegoela nabaritzen zen. Jatetxe batean sukaldari-laguntzaile moduan lana aurkitu zuela, nagusiak eta lankideak oso jatorrak zirela eta ondo ordaintzen ziotela kontatu zigun, eta gainera, dirua bidali zigun. Ikustekoa izan zen amaren aurpegia, ze pozik zegoen! Nik eskutitz hura irakurri ondoren mapan lehenengo aldiz aurkitu eta kokatu nuen Beasain. Eta aitak eskutitzak eta eskutitzak bidaltzen zizkigun Beasainen zuen bizitza kontatuz. Eta badakizue zer? Aitak beste eskutitz batean hau esan zigun:

-aurrezten egon ondoren iritsi da unea, uda zuekin pasako dut Touban !!!!!!!

Gu hori irakurtzean ikaragarri pozik jarri ginen eta gure egutegian udako lehenengo eguna borobildu genuen. A ze poza!!!!!!

Egun gehiegi pasatu ondoren azkenean iritsi zen. Denak besarkada potolo bat eman genion elkarri eta nire bizitzako udarik politena hasi zen denok elkarrekin.

Uda bukaeran aitak esan zigun etxe bat aurkitu zuela gu guztiontzat Beasainen eta oso gustura jarriko zela berarekin bizitzera joango bagina berak dirua zeukala hegazkin txartelak hartzeko

Aitarekin? Bai, aitarekin bizi nahi genuen nahiz eta horretarako gure jaioterria utzi behar izan.

Horrela uda ondoren bizitza berriarekin hasi ginen familiako guztiak.

Orain Beasainen bizi naiz aitak esaten zuen bezala jende jatorrarekin elkartu naiz. Nahiz eta hasieran zaila izan orain oso zoriontsuak gara.

Gaur gure irakasleak Idaz-lehiaketako ipuina idazteko esan digu, Nik pentsatu dut nire bizitza kontatzea ipuin baten itxura dauka eta.